

ADINEKOEK JASATEN DITUZTEN LAPURKETA ETA IRUZURRAK



ELKARTASUN-BESARKADA

1 HELBURUA:



Adineko pertsonengana gerturatu bide publikoetan eta lapurreta egin.

ESTANPATXOAREN IRUZURRA

1 HELBURUA:



Iruzurra adineko pertsoneri egiten zaie, kalean haiengana gerturatuta.

2 IRUZURGILEA:



Pertsona horrek adimen-urritasuneko itxurak eginez, biktimari esaten dio diruz betetako gutun-azal bat aurkitu duela. Eta erakutsi egiten dio gutun-azala.

"TOCOMOCHO"aren

IRUZURRA

1 HELBURUA:

Adineko pertsoneri egiten zaie iruzur hau. Aurrena, iruzurgileetako bat gerturatzen zaie kalean, helbide batez galdezko normalean.

2 IRUZURGILEA:

Iruzurgileak biktimari esaten dio saritutako txartel batzuk kobratzera joan behar duela, baina ez dakielako nola egin edo, aitzakiaren bat jarritz, berak ez daukala saria kobratzera joaterik.

EGILEAK:



Pertsona bat edo bi biktimarengana hurbiltzen dira, familiako norbaiten antza duela edo sexu-harremanak izan nahi dituela esanez eta laztandu, besarkatu edo musukatu egiten dute. Aitzakia horrekin diru-zorroa, bitxiak, erloju edo baliozko beste edozer gauza lapurtzen diote.

3. IRUZURGILEA (amua):



Bigarren iruzurgile bat, amua, hurbiltzen zaie eta biktima konbentzitzen du, gutun-azalean dagoena baino diru kopuru txikiago bat ordainduta, gutun-azalaz jabetu dadin.

4.

Iruzurgileek biktimari etxera, bankura edo kutxara laguntzen diote. Eskatutako diru-kopurua ordaindu duenean, gutun-azala eman eta aldegiten dute. Gutun-azala baliorik gabeko paperez beteta dago.

3 AMUA: Une jakin batean, bigarren

iruzurgilea, amua azaltzen da, normalean itxura onekoa, eta txartelak sarituta daudela baieztatzen du. Bien artean biktima engainatzen dute txartelak eros ditzan, sariarena baino diru-kopuru txikiago batez.

4 BIKTIMAK DIRUA EMATEN DU:

Bigarren iruzurgileak, amuak, bere diru zatia eman ondoren, banku-bulego batera eramaten du biktima, autoz, lehen iruzurgilearekin batera, bere diru partea atera dezan. Salaketak 1.000 €tik 10.000 €ra artekoak izan ohi dira.

BANKU ETA KUTXETAN

ATERATAKO DIRUA LAPURTZEA



1 HELBURUA:

Adineko pertsoneri gertatzen zaie batipat. Hileroko diru-saria edo bestelako diru-kopururen bat ateratzera joan eta, lapurra, zelatan egon ohi da bankuko edo kutxako sarreran.



2 BIGARREN ZELATARIA

Lapurretako bat banku edo kutxan ego ohi da zelatan eta norbaitek diru-kopuru handia atera duela ikusi ondoren, biktima zein izango den adierazten dio bigarren lapur zelatariari bati.



3 JARRAIPENA:

Bigarren lapur-zelatariak biktimari jarraitzen dio eta egoeraren arabera erabakitzen du dirua non eta nola lapurtu.



4 LAPURRETA EGITEA:

Lapurreta moduak:

- **Deskuidoan:** biktimak dirua non gorde duen ikusi ondoren (patrikan, poltsan, erosketa-karroan), lapurru egiten diote, oharkabean.

- **“Elkartasun-besarkada”:** lapurrak, bere familiako norbaiten antza duela edo sexu-harremanak izan nahi dituela esanez, biktima lastandu edo musukatu egiten du, aldi berean dirua lapurtuz.

- **Ongintzako kausaren baterako sinadura-bilketa:** iruzurgileak, karpeta eskuan, ongintza kausa baten aldeko sinadura eskatzen dio biktimari. Nortasun Agiria [NAN] eskatu eta horren aitzakian diru-poltsa manipulatu eta dirua lapurtzeko aprobetxatzen du. Batzuetan, elkartasun-besarkadarekin jarraitzen du.

- **Indarkeria edo larderiarekin:** aurreko metodoak erabiltuta lapurreta egiterik lotu ez duenean, lapurrak etxeko atarian itxoiten dio biktimari, harekin atarira sartu, igoigailuraino zenbaitetan, eta orduan erasotzen du biktima kolpeka, bultzadaka eta mehatxuka, dirua lapurtu arte.

IRUZUR ETA LAPURRETETATIK LIBRATZEKO AHOZKUAK

- Ez diru-kopuru handirik atera banku edo kutxatik. Kreditu-txartela erabili eta kopuru txikiak atera. Konfiantzazko pertsona batek lagunduta joan dirua ateratzera.
- Dirua atera ondoren, seguru gorde. Ez gorde erosketa-karroan, poltsan edo berokien eta txaketen kanpoko patriketan.
- Ez fidatu familiako norbaiten antza duzula esanez, oso maitekor edo-ta sexu-harremanak proposatuz datozkizunekin.
- Kontuz truke kontuekin. Inork ez du saritutako loteriarik aldatzen, ez-ta ogerlekorik lau pezeteten truk ere.
- Ez nabarmendu agerian balio handikoak edo deigarriak diren bitxiak.
- Argi ibili, poltsak eramatea eta antzeko laguntzak musutruk eskaintzen dizkizunarekin.
- Ez sartu atarira edo igoigailura ezezagunekin.

EDOZEIN ZALANTZA, SUSMO EDO GERTAKIZUN IZANEZ GERO 112 TELEFONORA DEITU